

Norman  
**MANEA**

*KORO NAVARRO*

L I T T E R A T U R A U N I B E R T S A L A



**Huliganaren  
itzulera**

erein & igela

NORMAN MANEA

*Huliganaren  
itzulera*

*(bizitza bat)*

Koro Navarro

*Itzultzailea*

erein & *igela*

**Jatorrizko izenburua:**  
**Întoarcerea huliganului**

*Liburu honen itzulpena Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskeal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearekin Literatur Ondare Unibertsaleko Obra Nagusien Bilduma euskarara itzultzeko sinatutako hitzarmenaren barruan burutu da.*

© 2003, Norman Manea

Eskubide guztiak erresalbatuta

Liburuaren azala eta diseinua: Antton Olariaga

Azaleko argazkia autorearena da

© Itzulpenarena: 2016, Koro Navarro

© Argitalpen honena: 2016, EREIN eta IGELA argitaletxeak

Inprimatzailea: Itxaropena, S.A.

ISBN: 978-84-9109-002-1

Legezko Gordailua: S.S. 266/2017



NORMAN MANEA (1936)

## HITZAURREA

NORMAN MANEA da gaur egungo errumaniar literaturako irudirik ezagunena. Hizkuntza askotara itzuli da haren obra, eta aitorten zabala izan du mundu osoan. Baina Sándor Márai hungariarrentzat bezala, harentzat ez baitzen Hungaria bere aberria, hungariar hizkuntza baizik, hizkuntza omen da Manearen aberria ere: errumaniera, ez Errumania.

Izan ere, Errumaniak ez du Manea oso ondo tratatu.

Norman Manea Suceava izeneko hirian jaio zen, 1936an, Errumaniako ipar-ekialdeko eskualde batean, Bukovinan. Non gabiltzan konturatzeko, ondo dator gogoratzea liburu honetan Bukovinako hiriburua dena, Cernăuți, Txernivsti deitzen dela gaur egun, eta ez Errumanian, baizik eta Ukrainan dagoela; XX. mendea soilik kontuan harturik, sei estatutan egona da hiri hori, Ekialdeko Europan harrigarria ez den gauza.

Manea judua zen, eta Bigarren Mundu Gerraren garaian, bost urte besterik ez zituela, Transnistriara deportatu zuten familia osoarekin; gero, Ceaucescuren komunismoaren garaian, beste kontzentrazio-esparru bat ezagutu zuen, zeharka orduko hartan, aita bisitatzera joanda. Aita funtzionarioa zen, eta behin haragiarekin tranpa bat egin omen zuela-eta, Peripravako esparruan preso eduki zuten, hamar hilabetez besterik ez, Estatu sozialistak haragiarena “oker judiziala” izan zela adierazi baitzuen.

Hirurogeietan hasi zen Manea idazten, eta izena eskuratzen idazle gisa Errumanian. 1986an, erregimen komunista ezin eramanik –edo zuzenagoa litzateke agian erregimen komunista ezin zuela bera eraman esatea–, 50 urte zituela erbestearen

bidea hartu zuen. Beka bat eman zioten Mendebaldeko Berlinen, eta hurrengo urtean Ameriketako Estatu Batuetara jo zuen, New Yorkeko Bard Collegen irakasle-lanak egitera, berea ez zen herrialde batean eta sorkuntza-hizkuntza inoiz osorik bereganatu ez zuen ingelesez aritzeko. Urruti egon arren, bere jaioterriko nahiz Europako debate handiei lotua egon da beti Manea. Batzuetan, guztiz desagertu gabeko antisemitismoa, eta gorrotoaren eta manipulazioaren forma berri gero eta globalizatuagoak salatuz. Besteetan, ultranazionalismo intransigente eta xenofoboaren indar gero eta handiagoa seinatuz, sobietarren eraginpekoa izandako Erdialde-Ekialdeko Europan batez ere.

Ederki kostata barkatu dio Errumaniak deserritzea: makina bat bider idazlea salatu ondoren errumaniar betea –behar bezain abertzalea– ez izateaz eta abarrez, azken urteotan herriak bakeak egin ditu bere idazle nagusiarekin.

Autobiografiak toki handia hartzen du Manearen lanean, eta sailka daitekeen neurrian, autobiografikoa da haren obra ezagunena, *Huliganaren itzulera* hau ere. Manearen obra osoa edo ia osoa itzuli da ingelesera; gaztelaniaz eta frantsesez eskura daude obra nagusiak: *Plicul negru* (Gutun beltza); *Despre Clovni: Dictatorul si Artistul* (Pailazoez: diktadoreak eta artistak); *Fericirea obligatorie* (Nahitaezko zoriona), eta abar. Denetan ageri da lekuko “pribilegiatu” honen irudia: bi bider esetsia, bi totalitarismoren biktima, Imre Kertész hungariarra eta beste hainbat idazle bezala.

## **Huliganaren itzulera<sup>1</sup>**

XX. mendeko gertaera handietan murgilduriko existentzia baten kontakizuna da *Huliganaren itzulera*; biografia arte bihurtzen

1 Atal honetarako hemen oinarritu naiz: <http://batboyreads.blogspot.com.es/2011/11/el-regreso-del-huligan-de-norman-manea.html>

asmatu duen idazle baten bidaia da, denboran eta espazioan, ametsean eta errealtatean, iraganean eta orainean barna. Egile/kontalari/protagonistari bere sorterrira itzultzeko aukera eskaintzen zaionean hasten da bidaia handi hau. Oroitzapenak oldean heltzen dira orduan: deportazioak etendako haurtzaroa, komunismoak gaztaroen sortutako suhartasuna eta ondorengo desilusia, Ceaucescuren diktadurapeko bizitza, intelektualaren zailtasunak inguru itogarri batean, eta, azkenik, erbestea. Hamar urte behar izan zituen Maneak itzultzearen aukeran pentsatzen hasteko. Itzuli? Zertarako? Merezi du? Pertsona subertsiboa, sedizioilea, errebeldea da *Huligana* errumanieraz (*buliganul*). Posible ote da, huligana izan ondoren, aberrira itzultzea?

Liburuak lau atal baditu ere, hiru zati guztiz berezietan dago antolatua. Bere herrira bisitan joatera gonbidatzen dutenean, idazleari sortzen zaizkion zalantzak eta beldurrak ageri dira aurrenekoan. Lehen zati hau Mihail Sebastiani egindako erreferentziekin abiatzen da. Sebastian idazle juduak (1907-1945; egiazko pertsonaia, beste guztiak bezala) Mircea Eliade errumaniar intelektual handia kritikatu zuen, Burdinazko Guardia talde ultranazionalista eta antisemitarekin zituen harremanak zirela-eta; esan behar da nazi alemanak berak ere ikaratu zituzten pogrom eta sarraskiak egin zituela talde hark 40etan. Hala, sekulako zalaparta sortu zen Errumanian Sebastianen kritika hura zela-eta, eta haren ondoriozkoa dirudi Chicagoko unibertsitatean tiro batez asasinatu zuten Ioan Petru Culianuren irakaslearen kasuak. Ez da behin ere hilketa argitu; batzuek hildakoaren antikomunismoarekin lotzen dute, eta beste batzuek Burdinazko Guardiarekin, Culianuk ere Eliaderekin iraganaren alderdi batzuk kritikatzeko asmoa zuelakoan. Abiapuntu horretatik aurrera, kontalariaren gogoetak ageri dira *Huliganaren itzuleran*, gero etorririko diren gertakizunen erreferentziekin nahasirik.

Bigarren zatian daude, nik uste, irakurleari interesgarriena gertatuko zaizkion pasarteak. Memoria zoragarriak dira, zeinetan bere bizitza, bere familiaren eta bere herriaren mende erditik pasako historia kontatzen baitizkigu Maneak.

Aparteko kontalari gisa agertzen zaigu Manea hemen. Sentiberatasun handiz, baina batere milikeriarik gabe, batzuetan bortizkeriara ere heltzen den autokritika batekin, idazkera trinkoa erabiliz, gogoeta erruz eginez (eta, behar den bezala, inolako konklusiotara heldu gabe), ghettotik (hau da, holokaustoaren oroitzenetik, amarengandik eta haren biktimizatik) atera nahi duen judu ateo baten atsekabeaz, ezin ahaztuzko pasarteak eta istorioak kontatuz (pioneroen lider gisa izan zuen esperientzia, lagun bat jendaurrean salatu eta kanporatu behar izan zuten arte; aitonaren heriotza, umea zela bere aurrean gertatua, eta nola ikusi zuen aitona hil eta handik gutxira, haren bigarren emaztea ilea txukuntzen ispiluaren aurrean; Maria neskamearen istorioa, zeina familia deportatu zutenean bera ere joaten tematu zen neskaxa bihotz onekoa baitzen), beti ere, jauzi bikainak eginez denboran atzera eta aurrera. Batzuetan oso urrutira, trena, deportazioa eta oso urrutikoa ere ez zen Marc Chagall margolariaren obra lotuz, zeina liburu honetako leitmotiv –edo obsesio– garrantzitsua baita:

Gurpilek gaueko leloaren konpasa markatzen dute, loaren koska ilunetan lerratzen hasi naiz. Halako batean, sua. Bagoiak sutan, sutan zerua. Sua eta kea, sutan dago ghettoa. Herri bat kiskaltzen, pogromoa eta sua. Sugarretan etxe txikiak eta zuhaitzak, garrasiak. Zeru gorrian, sakrifizioko oilarra eta sakrifizioko bildotsa. Martiria herriaren erdian suari lotua. Gurutziltzatze bat bezala, baina gurutzearen zeharkako makila falta da, makila bakarra dago, lurraren gainetik zut. Ez dute gorputza iltzez lotu, eskuak besterik ez daude lotuak,



eta errezoaren zinta sakratuekin, filakteriekin. Hankak soka batekin lotuak zutoinari, eta otoitzaren marra zuri-beltzekiko xalean bildua gorputza. Martiriari oinak ikusten zaizkio, bularraren parte bat, besaburu bat, besoak, larruazal lumineszentea, hori-kolorea eta distira moreak. Aurpegia zurbila, luzaxka, gazte-bizarra, patilla finak eta gorrikkak, betazal eroriak begi nekatuen gainean, eta txano berde bat, bisera alde batera duela.

Hirugarren zatian, Bukarestera doa Manea, León Botstein-ekin (1946; pertsonaia guztiz interesgarria eta erreala hau ere, egilearen laguna, orkestra-zuzendaria, eta Maneak lan egiten duen New Yorkeko unibertsitateko errektorea). Bukaresten igarotzen dituen hamaika egunen kronika dator ondoren. Hara eta hona garamatza Maneak, aspaldiko lagunak bisitatuz, gaztaroko kaleetara joanez, jatetxe berriak ezagutuz, eta abaildu egiten gaitu, nahastu egiten gaitu bere oroitzapenekin, bere ametsak –amets txarrak normalean, amets gaiztoak– interesatzea ere lortzen baitu “ekialdeko” siesta egiten duenean bere hotel erraldoian.

Hori guztia, pentsatzekoa denez, zorrotasunez kontatua dago, ironia mingarriz batzuetan, kritika eta autokritika latza ere eginez. Eta hor hartzen du inondik ere liburuak bere balio nagusia, balio unibertsala. Judutasunaz asko hitz egiten da, jakina, baina ez erlijioaz, izate juduaz eta identitate juduaz baizik. Esate baterako, honela:

Galdetu zizunean Freud doktoreak zer geratzen zaion judutik ez erlijiosoa, ez nazionalista, ez Bibliako hizkuntzaren hiztuna ez den judu bati, hark emandako erantzun bat zezeldu zenuen: “Asko”. Hitzak zer esan nahi zuen ez zenuen azaldu, eta Freud doktorea ere ez zen izan azaltzeko bezain zuhurgabea. (...) Denborarekin,

zuk ere komatxoak eskuratu zenituen, Freud doktoreak bezala. Ez judutzat, baizik eta “judutzat”, hartzen du gaur Monsieur Lyotardek Sigmund Freud, baita haren kide Walter Benjamin, Theodor Adorno, Hannah Arendt eta Paul Celan ere. Aleman ez-alemanak ez ezik, judu ez-juduak dira, azaltzen du frantsesak lagunkoi. Susmagarriek auzitan jartzen dituzte tradizioa, mimesia eta immanentzia, baita “emigrazioa, sakabanatzea eta integratzearen ezintasuna” ere.

Eta identitateaz oro har, postkomunismoak bestelako eskakizunak ekarri baitzizkien errumaniarrei, idazle deserrituari bereziki.

“1982an, lurraldez kanpoko eta alderdiaren kontrakoa. Hamar urte geroago, egiaz lurraldez kanpoko, Alderdia bezalaxe, hura ere ezerezean desagertu baitzen”.

Postkomunismoko Jormaniano egunkariak, izan ere, deserritua ohoratzen jarraitzen zuten: “traidorea”, “Jerusalemgo ipotxa”, “Gixon-erdia”. Bai, aberria ez zen nitaz ahazten, eta niri ere ez zidan berataz ahazten uzten. Dirua gogotik gastatu zuten nire lagunek zigiluetan, urtea joan eta urtea etorri, urtaroa joan eta urtaroa etorri, omenaldi haiek niri helarazteko. 1996an, “pipia errotik suntsitzea” exijitzen zuten jadanik abertzale berriek. Azken soluzioaren adierazpide kafkiar hark, jakina, deserritu gisa itxuraldatutako intsektua seinalatzen zuen, itsasoz eta lurrez haraindi, Paradisuan ezkutatu zen hura.

Badira guztiz jakingarriak diren beste istorio batzuk ere; bat, Romeo eta Julietaren maitasun tragikoarena, baina errumaniar bertsioan: kontalaria eta neska “kristau”, “jentil” edo “*shiksa*” bat (hau da, emakume ez judua, yiddishez) maite-

mintzen direnekoa, Romeo eta Julietaren istorio tragikoaren Ekialdeko bertsio ez hain-hain tragikoa, ghettoak –amak– inola ere ezin onartu duten gauza. Eta martxan jartzen dira ghettoaren atzaparrak... ghettoa kanpotik ixten baita, baina baita barrutik ere.

Romeoren familiak telefono-dei bat jaso zuen, jakinarazi ziona bikotea maitasun-eldarnio betean zegoela Itsaso Beltzaren bazterrean. (...) Milaka urteko deitoreek bultzatuta, martxan jarri ziren ghettoaren atzaparrak, eta zero-lurrak nahasi zituzten aztarren susmagarrien bila. (...) Ezin zitzaien ezikusia egin, are gutxiago aurre egin, deitore-erretolikei, takikardia-eszenei, gertu zen suizidioa iragartzen zuten espasmoei. Mater Dolorosa ez zen hasiberria era hartako antzezpenetan, baina, orduko hartan, botikek eta argudioek ez zuten laguntzen.

Izan ere, gauza bera dira Manearentzat ghettoa eta ama; ama, “Mater Dolorosa”, zillbor-hestea moztu nahi ez duena; eta semeak mozten badu, ez dio inoiz barkatuko:

Ghettoaren kontrako nire borroka, beste ezer baino gehiago, amaren kontrako borroka izan zen; amak gehiegikeriaz bizi zuen eta, orobat gehiegikeriaz, inguruari kutsatzen zion urduritasunaren, gehiegikerien eta izumenaren kontrako borroka. Ez nintzen garaile atera lehia amaigabe hartatik; bizirik ateratzea besterik ez nuen lortu.

Biktimari buruzko hausnarketa berez bezala dator liburuan. Amaren eta aitaren erreakzio desberdinak deportazioan, Transnistrian: espero izatekoa amarena, nola edo hala bizirik atera

behar, nondik edo handik janaria, arropa, indarra, bizirik jarraitzeko behar dena eskuratu. Eta hona hemen Marcu aitarena:

Marcuk etsiak hartua ematen zuen. Lehen unetik bertatik, trenean pilatu gintuztenetik. Eta gero, bagoietara bota gintuztenean. Gau beltzean esnatu ginen, baionetan eta irainen artean. Aitak bere alkandora ikusi zuenean, beltza, zorritz bete... Zorriak gure gainetik paseatzen ziren. 'Ez du merezi horrela bizitzeak', esaten zuen aitak. Itxaropena galdu zuen. Izan ere, oso gizon garbia izan zen hura beti. Bai, hain gizon apaina eta dotorea... Alkandorak egun batez besterik ez zituen erabiltzen. Galtzetinak ere lisatu behar zitzaizkion, halakoxea zen. 'Jadanik ez du bizitza merezi', behin eta berriz. Transnistrian lehen egunak eman ondoren ere, gauza bera esaten jarraitzen zuen. 'Ez du merezi, ez du merezi'. 'Merezi du', esaten nion nik. 'Merezi du, merezi du! Eusten badiogu, bizirik ateratzen bagara, jantziko dituzu alkandora garbiak. Baina horretarako behar den guztia egin behar da'. Eta halaxe egin genuen. Zeinek jakin zezakeen orduan itzuliko ginen edo ez?

Eta aurrerago:

Heriotza bai, baina umiliazioa ez! Dena arriskatuz, nazkanazka eginda, errealitatetik alde egin zuen. Ez zuen mirabekeriara jo, ez zen azal-zuria bihurtu, esklaboei eskatzen zitzaien bezala, ez: Duintasunari ez zion uko egin Manea jaunak! Emaztearen begietan hori zorakeria bat zen, baina senarrak ez zuen amore ematen. Merkatu beltzak nazka ematen zion, baita sentimenduenak ere, ez bakarrik aspirina eta ogiarenak, eta nazka ematen zion orobat zapaltzaileen ankerkeriatik salbatzeko asmoa

hartutako biktimen ankerkeriak. Munstro borreroek munstro biktimak sortzen dituzte, esan ohi zuen, bere ahots ahul baina sendoarekin.

Eta berez bezala dator umorea ere. Umora beltza da askotan; baina azken urteei dagozkien kontakizunetan ageri da batez ere, deserrikoetan alegia, aurrekoetan nonbait ez baitago leku handirik umorearentzat.

Hala, komediako doinuan daude kontatuak Mendebaldera alde egiteko paperen kontuak eta jestioak. Berlinen, funtzionario frantsesarekin egon behar du Maneak lehendabizi:

“Lehendabizi ordezkari frantsesarekin hitz egingo duzu. Bukatzean, zatoz berriro hona”.

Gizona ezkerreko atera hurbildu zen. Hiru pauso, eta sartu zen. Parean esertzera gonbidatu zuen idazmahaiaren atzean zegoen gizon argalak. Gizona zorroa besoen artean zuela eseri zen.

“Nahiago duzu alemanez hitz egin?”, galdetu zion frantsesak alemanez. “Edo frantsesez bestela?”.

“Frantsesez edo alemanez hitz egin genezake”, erantzun zuen eskatzaileak alemanez.

“Pozten naiz, pozten naiz”, jarraitu zuen funtzionarioak irribarrez, frantsesez. “Errumaniarrek ia denek hitz egiten dute frantsesez, ezta? Nik Parisen ditudan lagun errumaniarrek ez dute arazorik izaten han egokitzeko”.

“Bai, frantsesa erraza da errumaniarrentzat”, baietsi zuen errumaniarrak, frantsesez.

Baita funtzionario alemanarekin, eta amerikarrarekin ere:

“Ingelesez egiten duzu?”, galdetu zion amerikarrak bere ingeles amerikarrean.

“A little”, erantzun zuen eskatzaileak iheskor, esperantoz.

“OK, alemanez ere hitz egin genezake”, jarraitu zuen amerikarrak bere aleman amerikarrean. “OK?”.

Urteak pasatuta, ezin hobeto deskribatzen da komunismoaren estetikak eta postkomunismoan derrigorrez modernoagotzeko eta dotoreagotzeko desirak bat eginda dakarten kitscha.

Balada jantokia, hoteleko hamazazpigarren solairuan, gorritz eta urrez dekoratua, larru gorritzko aulkiekin, mahai-zapi gorriekin eta ezpain-zapi folkloriko gorriekin. Gizonezko zerbitzariak jaka gorriekin, emakumezkoak gona gorriekin. Gorritz jantzita daude orkestrako kideak ere, ezkutu urre-kolore batez hornituriko ohol banaren atzean eserita.

Gaueko bederlatziak dira, eta ni naiz bezero bakarra. Orkestrak ez dirudi batere adoregabetua, pieza bat bada bakarlari batek italieraz abesten duena, eta kemen handiz imitatzen du gure lehengusu latinoen odol beroa. *Good evening* batekin egin dit harrera zerbitzari buru-ilun bi-botedunak, eta bi koaderno lodi ekarri dizkit menuarekin eta edariekin, errumanieraz eta ingelesez. Ingelesez egin dut eskaera, ardura handiagoz zerbitzatuko nautelako ez ezik, baita aurrean dudan gizon isil eta tristeari gaueko bezero bakarra turista delako ilusioa emateko ere.

\* \* \*

Hitz bat itzulpenaz: jatorrizko bertsiotik ezin itzuli, eta frantsesezkoa (Nicolas Véron) eta gaztelaniazkoa (Joaquín Garrigós) erabili ditut, oso testu onak eta itzulpen leialak biak: egiaz itzulpen ederra Garrigósen. Zenbaitetan ingelesekora ere jodut (Angela Jianu), argibide bila, bai baitira pasarte batzuk oso ilunak, eta lagundu dit. Azkenik, aurrean eduki dut jatorrizko errumanierazkoa ere; errumaniera latin-hizkuntza da –uharte bat eslaviarren artean, errumaniarrek harro-harro esaten duten bezala, uharte *zibilizatua* esan nahian, Traxano enperadore erromatarraren ondorengoak omen dira-eta–, eta hain zaila ere ez da beste hizkuntzen laguntzarekin testuari jarraitzea.

KORO NAVARRO

NORMAN MANEA



*Huliganaren  
itzulera*



*Cellarentzat*

# ATARIKOAK

## BARNEY GREENGRASS

LEIHOA PARETA BEZAIN ZABALA DA, eta udaberriko argi edenikoa sartzen da bertatik. Paradisuko zalapartari begira dago, hamargarren solairuko altueratik, gelan dagoen gizona. Beste Munduko eraikinak, errotuluak eta oinezkoak. *In paradise one is better off than anywhere else,*<sup>1</sup> errepikatu beharko zuen goiz hartan ere.

Kalearen beste aldean, eraikin gorri sendoa. Haur taldeak ikusten ditu, dantza eta gimnastikako eskoletara doaz. Broadway eta Amsterdam Avenueko bidegurutzean blokeaturik, orro batean ari dira taxi-ilara horiak, goizaren metronomo mozkorrak historiara eramanda. Behatzaileak, alabaina, zerua, basamortua, basamortuaren kronofagia motela, hodeietako termita erraldoiak miatzen ditu.

Kaleko kantoian dago gizona ordu-erdi geroago, bera bizi den berrogeita bi solairuko eraikinaren parean. Estilo-arrastorik ez, insanblaje-geometria hutsa: aterpea bakarrik, elkarren ganka jarritako bizitokiak. Bloke estalinista... dio gizonak ahapetik. Ez, hain altuak ez ziren bloke estalinistak. Estalinista halere, dio berriz ere, bere bizitza berriaren duintasunari erronka eginez. Berriz ote da gaur goizean duela bederatzi urte zen gizon bera? Ikaratu egingo ote da, orduan bezala, heriotzaren ondorengo bizitzaren berritasunarekin? Bederatzi urte, sabel barruko bederatzi hilabeteen pare, abentura distiratsu honetaz erditzen den goiz guztiz berri honetan, hasieren hasieran bezala.

1 Ingelesezt jatorrizkoan: "Paradisuan beste inon baino hobeto egoten da bat" (Ohar guztiak itzultzailearenak dira).

Ezkerrean, letra zuri handiekiko errotulu urdina, rite aid pharmacy, gizonak bere botikak erosi ohi dituen botika-denda. Eta, halako batean, sirena-hotsa. Bost suhiltzaile-kamioik hartu dute kalea oldarrean, sirenaz, danborrez eta zezenen orroz hornituriko gotorleku metalikoen gisara. Paradisuan bertan ere, pizturik daude infernuko suak. Ez da gauza larria, segituan berregin da ostera ere lehengo ordena. Hara hor nortasun-agiri berrirako argazkiak egin dizkioten laborategia. Aldamenean, ogitartekoen denda, subway kartel horia, starbucks bohemioen kafetegia. Mcdonald's, jakina, letra zuriekiko eta M handi horiarekiko errotulu gorria. Ate metalikoaren aurrean, andre xahar bat, galtza bakeroak eta kirol-zapatila beltzak, kapela kolonial zuria, begietaraino sartua; makila eskuin eskuan, poltsa handi berdea ezkerrekoan; eta bi eskale beltz, altuak eta bizardunak, plastikozko baso zuri bana dutela eskuan. Pakistandarraren prentsa-kioskoa, indiarraren tabako-denda, jattetxe mexikarra, andrazkoen arropa-denda, korearraren fruitu- eta lore-saski handiak, angurri horiak, gorriak, aran beltzak, gorriak, berdeak, Mexikoko mangoak eta Haitiko mangoak, pomelo horiak, arrosak eta zuriak, mahatsak, azenarioak, gereziak, platanok, Fuji sagarrak eta Granny sagarrak, arrosak, tulipak, krabelinak, azuzenak, urreliliak, mendiko eta lorategiko loreak, zuriak, horiak, gorriak. Eraikin baxuak, eraikin altuak eta eraikin altuagoak, nahasturik estiloak, proportzioak eta patuak, Mundu Berriko, Mundu Zaharreko eta heriotzaren ondorengo bizitzako Babilonia. Japoniar txiki-txikia, alkandora gorria eta txano gorria soinean, paketez goraino betetako bi poltsen artean balantzaka. Mutil horail bizarduna, galtza motzetan eta pipa errez, galtza motz berdeekiko bi neska-puska horailen artean, eguzkitarako betaurreko beltze-kin biak eta motxila txiki bana dutela bizkarrean. Neska altua, mehea, oinutsik, ilea motza eta gorria, kamiseta gardena, galtzak motzak, ikaragarri motzak, piku-hosto baten antzera. Gizon handi burusoila, bi ume txiki besoetan. Gizonkote baxua, bibote beltza eta urrezko lepokoa. Eskekoak, poliziak, turistak, bakarra ere ez

ordezkaezina. Amsterdam Avenue eta Hirurogeita Hamabigarren kalearen arteko bidegurutzean, Verdi Square parke txikia, hesi metaliko batek hiru aldetatik ixten duen belarrezko hirukia. Erdian, harri zurizko idulki baten gainean, lebitaz, gorbataz eta kapelaz jantzia, Giuseppe Verdi *signorea* bere operetako pertsonaien artean; haien gainean Paradisuko beleak atsedean lasaian. Hesiaren pareko bankuetan, jende hilkor xehea: jubilatua, elbarritua, arloteak pikarokerian eta patata frijituen zorrotik mokoka jaten edo pizza gomatsu bati koskaka.

Ezertxo ere ez da falta Paradisuan: janaria, arropa, egunkariak, koltxoiak, aterkiak, ordenagailuak, oinetakoak, altzariak, ardoak, bitxiak, loreak, betaurrekoak, diskoak, lanparak, kandelak, sarrailak, kateak, zakurrak, hegazti exotikoak, arrain tropikalak. Eta merkatariak, saltinbankiak, poliziak, ile-apaintzaileak, zapata-garbitzaileak, kontulariak, emagalduek, eskaleak: aurpegi guztiek, hizkuntza guztiek, adin, altuera eta pisu guztiek jendeztatzen dute goiz gertagaitz hau, zeinean ospatzen baititu bizirik ateratakoak bere bizitza berriko bederatzi urteak.

Honako Beste Mundu honetan, ezereztu egin dira distantziak eta debekuak, sakelako pantailetan eskura daitezke jakintzaren fruituak, botika guztietan eskaintzen ditu bere fruituak heriotzarik gabeko bizitzaren arbolak, bizitza abiada bizian doa, unean unekoak besterik ez du inporta: orainak, une gisa. Hara infernuko sirena, joka berriz ere! Baina oraingo honetan ez da su-kontua. Odolezko zirkulu bat, gurutze gorri bat eta idatzi gorri bat utzi ditu bolido zuriak atzean, airean: anbulantzia.

Ez, ezertxo ere ez da falta heriotzaren ondorengo bizitzan, ezertxo ere ez. Gizonak begiak jasotzen ditu mirari hau ametitzen duen zerurantz. Obturatua dago ortzia, zementu armatuzko paralelepipedoek zeru-zirritu bat besterik ez dute pasatzen uzten. Eskuineko fatxadak begiratua oztopatzen du. Zabor-hodi urdin bat pareta luze kafe-kolorearen kontra. Ezkerraldean, pareta horia. Pintura urre-kolorearen atzealde distiratsuren

gainean, mezuaren irisazio urdina: depression is a flaw in chemistry, not in character.<sup>2</sup>

Abisua edo informazioa? Zaila da esaten. Gizonak, burua atzeraka botata, testu sakratuaren zutabeetan finkatu du begiratua, baina suspertu da, pauso bat atzera egin eta Amsterdam Avenuetik aurrera jarraitu du. Geroko Bizitzaren abantaila: immunitatea. Hemen ez zaude, zure aurreko bizitzan bezala, huserria guztiei lotua; aurrera egiten duzu, axolagabe, zeure bidetik.

Oinezkoa Barney Greengrass aldera doa. “Toki horrek lehen-go bizimodua gogoraraziko dizu”, agindu dio lagunak.

Amsterdam Avenueko eraikinak iraganekoak dira, etxe zahar gorrixkak, ilunak, grisak, lau, bost edo sei solairukoak, balkoi beltzak, metalikoak, denborak belztutako sute-eskailerak. Geltoki-auzoa, horixe iruditu zitzaion gizonari Upper West Sideko alderdi hori ikusi zuen aurreneko aldian. Mundu Zaharra gogorarazten zion. Baina bertan bizitzen daramatzen bederatzi edo lauogeita bederatzi urteetan, ugaldu egin dira eraikin altuak, gero eta altuago, eta, haien aldean, lorpen estalinista triste bat ematen du bera bizi den berrogeita bi solairuko blokeak... Ai, horra berriz hitza, zertara gabe.

Beheko solairuan, dendak, garai batekoak bezalakoak: full service jewellers, utopia restaurant, amaryllis florist, lotto, shoe store, adult video, chinese dry cleaning, nail salon, roma frame art, memorial: riverside memorial chapel, Hirurogeita Hamaseigarren kaleko bidegurutzean. Neska gazte bat atera da eraikinetik, hanka sendoak eta ile luze beltza. Mahuka motz beltzekiko soineko beltza, galtzerdi beltzak, eguzki-betaurreko beira lodi beltzekoak. Hiru auto beltz, luze-luzeak, hilkutxa erraldoien antzekoak, leiho beltzekin. Jaun dotore batzuk jaitsi dira autoetatik, beltzez jantziak eta kapela beltzak buruan; andre dotoreak, beltzez jantziak eta kapela beltzak buruan; doluzko trajez jantzitako nerabeak.

2 “Depresioa akats kimiko bat da, ez izaera-akatsa”.

Jo dio berriz ere baten bati metronomoak eternitatearen ordua. Bizitza mugimendua da, gizonak ez du ahaztu. Presaz urrundu da. Pauso bat, bi pauso, eta arriskutik kanpo dago.

ottomanelli. Egurrezko bi banku sarreraren alde banatan. Atso zahar bat eskuineko bankuan. Erakusleioha estaltzen duen olanaren oihal berdearen gainean, idazkuna: ottomanelli Bros., since 1900. Gizona, nekaturik, ezkerreko bankuaren gainean erori da, aldameneko atsoari begirik kendu gabe.

Atsoak hutsera begiratzen du, baina erne dagoela dirudi, gizonaren mugimenduei adi. Elkar ezagutu dutela ematen du. Berari ere ezaguna gertatzen zaio emakumearen presentzia, sumatu izan du arratsalde batzuetan, bat-batean gelditasun gozo eta babesgarri batek gela biltzen duenean. Kanean, ordea, egun argiko zalapartaren erdian, ez zaio behin ere halakorik gertatu.

Atsoa altxatu egin da, gizonak pixka bat urruntzen utzi dio eta, iraganeko kadentzia motel horrekin, haren atzetik abiatu da. Hankak meheak eta zurbilak, orkatilak finak. Galtzetin gardenak, zapata arinak takoirik gabeak, txinal tankerakoak. Ilea zuria eta motza. Bizkarra hezurtsua, aurreraka makurtua. Soinekoa mahuka-motza, gerririk gabea, oihal mehe koadroduna, marra gorriak eta laranjak urdinaren gainean. Ezkerreko eskuan, plastikozko zorroa, antzina bezala. Eskuinean bildua, aspaldi bezala, artile grisezko jaka.

Gizonak pausoa bizkortu du, aurea hartu dio emakumeari, eta, halako batean, harengana jiratu da, parez pare daude orain biak. Atsoak ikara egin du! Ezagutu du, seguru, ottomanelliren sarreraren pareko beste bankuan, leher eginda, bere burua erortzen utzi duen gizona. Gizona ere ikaratu egin da. Horrelaxe, hutsetik aterata, banku batean, jatetxe baten aurrean, zer eta mamua!

Ibilera, silueta, soinekoa, jaka, ileordea dirudien ile zuri motza, segundo-izpi batez begiztaturiko aurpegia. Kopeta, bekainak, begiak, belarriak, kokotsa, denak dira lehengo berak. Ahoa da ondo marraztua ez dagoen gauza bakarra, marra hutsa

da orain, ezpainak luzeegiak eta zapalak. Sudurrak galdua du bere marra perfektua, zabalagoa da. Lepoa zahartua dago, larruazala eroria, zimurrez betea.

Urrutitik jarraitzen dio atsoari orain. Siluetak, ibilerak, itxurak, ez dute jadanik ezagutza-seinaleen premiarik, zugan dago dena, ondo ezaguna da, aldaezina, ez duzu zertan ibili kaleetan irudi horren atzetik. Bere gogoetetan galduta, distraiturik, gizonak pausoa moteldu du; desagertu da ikuskaria, berak nahi zuen bezala.

Azkenean, Laurogeita sei eta Laurogeita zazpi kaleen artean, horra hor jomuga, barney greengrass. Leihoaren ondoan, jabea, hanka-zabal eserita aulki batean, urrezko botoiekiko alkandora mahuka-luze zuri zabal batean bilduak bizkar konkortua eta sabela. Lepomotza da, burua ile zuriz estalia du, sendoak ditu sudurra, ahoa, kopeta eta belarriak. Ezkerrean, mantal zuria jantzita, saltzaile bat Saltxitxoi-Halvaren mostradorearen atzean.<sup>3</sup> Beste saltzaile bat eskuinean, Ogia-Bilkariak-Opilak-Bizkotxoak mostradoreari bizkarra emanda. Gizonak jabe zaharra agurtu du, baita, haren aldamenean, belarrietan telefono bana duela dagoen gizaseme gaztea ere. Ezkerreko lokalera igaro da, jatetxera.

Paretaren ondoko mahaian, gizon argal, altu, betaurrekodun batek begiak egunkaritik jaso ditu. Usadiozko agurra dator segidan: “Zer moduz, mutiko?”. Aurpegi ezaguna, ahots ezaguna... Horrelako uneak esker onez hartzen dituzte erbesteratuek beti.

–Zer moduz, mutiko? Zer berri?

–Ezer askorik ez! “*The social system is stable and the rulers are wise*”,<sup>4</sup> gure kide Zbigniew Herbert-ek<sup>5</sup> esaten duen bezala. “*In paradise one is better off than in whatever country*”.<sup>6</sup>

3 *Halva*: Asiako eta Mediterraneoako zenbait herrialdetako gozokia, turroiaren antzekoa.

4 “Gizarte-sistema egonkorra da eta agintariak zuhurrak dira”.

5 Poloniar poeta (1924-1998).

6 “Paradisuan beste edozein herrialdetan baino hobeto egoten da bar”.



Nobelistak hainbeste ere ez ditu maite poetak, baina bertso horiek, zorionez, prosa ematen dute.

–Zer berri? Hemengo berriak nahi ditut, ez Varsoviakoak.

–Gaur ospakizuna dut! Bederatzi urte Paradisuan. 1988ko martxoaren 9an heldu nintzen Mundu Berriko itsasbazterrera.

–Mutikoei gustatzen zaizkie urtebetetzeak. Leku ona Barney urtebetetzeentzat. Ghettoaren oroitzapenak. *Oy, mein Yiddische Mame...*<sup>7</sup> Mundu zaharra eta bizimodu zaharra.

Plastikozko karpeta bat luzatu dit, menua. Bai, horra hortxe ghettoaren tentazioak: *Pickled Herring in Cream sauce. Fillet of Schmaltz Herring (very salty). Corned beef and eggs. Tongue and eggs. Pastrami and egg. Salami and egg. Home made chopped chicken liver. Gefilte fish with horseradish.*<sup>8</sup> Baina oilasko-gibela ez da ahate-gibela, hazkunde industrialeko oilasko amerikarrak ere ez dira Ekialdeko Europakoak, arraina ez da Mundu Zaharrekoa, ezta arrautzak ere. Jendea, ordea, iragana berreskuratu nahian aritzen da beti, eta hara hemen iraganaren ordezkokoak. *Russian dressing, Russian dressing* nonahi... *Roast Beef, Turkey, Cole Slaw...*<sup>9</sup> Identitatearen mitoa, bai, oroitzapenen ordezkokoak, iraupenaren hizkuntzan emanak.

ZERBITZARI GAZTEA, altua, lerdena. Segituan ezagutu du nobelista ospetsua. “Irakurri dut zure azkeneko liburua, *Sir*”. Philippek ez dirudi ez balakatua, ez gogaitua gehiegizko konfiantzagatik.

7 Yiddishez jatorrizkoan: “Oi, nire ama judua”. Abesti ezagun baten titulua ere bada.

8 Sardinaz marinatua esnegainezko saltsarekin. *Schmaltz* sardinazarra (oso gazia). Behikia arrautzekin. Mingaina arrautzekin. Pastramia arrautzekin. Saltxitxoia arrautzekin. Oilasko-gibel xehatuak, etxean eginak. Arrain betea errefau minekin.

9 Errusiar saltsa, behiki errea, indioilarra, aza-entsalada.

“A bai? Gustatu zaizu?”. Gustatu zaio, baina gutxiago aurrekoa baino, aitortu egin behar, askoz ere erotikagoa zen hura.

–Ondo, ondo –dio idazleak begiratu aurretik jaso gabe–. Nik arrautzak izokinarekin eta laranja-ura hartuko ditut. Arrautza ere bai, baina zuringoa bakarrik, goringorik gabe.

Zerbitzaria beste bezeroarengana jiratu da.

–Eta zuk, jauna?

–Gauza bera, gauza bera –aditzen dut neure burua hitz totelka.

–Zer iruditzen Barneyren sukaldea?

Barney Greengrass Ekialdeko Europako sukaldaritza judua imitatzen saiatzen da, kartsuki saiatu ere; baina iraganeko zaporea hona ekartzeko ez da nahikoa tipula frijitua eranstea, ez menuan *beigole*, *knisch*<sup>10</sup> eta halakoak idaztea.

–Konforme, ez duzu zertan erantzun. Errumaniara zoaz? Zer erabaki duzu?

–Oraindik ez dut ezer erabaki.

–Ikara ematen dizu? Chicagoko hilketaz gogoratzen zara? Irakasle hura... Nola zuen izena, Chicagoko irakasle hark?

–Culianu. Ioan Petru Culianu. Ez, nik zerikusirik ez dut Culianurekin. Ni ez naiz transzendentziazalea, nik ez diot nire maisuari traiziorik egin, eta ez naiz emakume judu batez enamoratutako kristaua, judutasunera bihurtzeko prest. Ni nomada gizajo bat besterik ez naiz, ez arnegatu bat. Arnegatua zigortu egin behar da, eta ni berriz... Ni aspaldiko traba bat naiz, besterik ez. Nik ezin diot inori sorpresarik eman.

–Sorpresa, hori ez dakit, baina traba bai, traba izan zara. Susmagarria irudikorra bihurtzen da beti. Eta hori ez da bentaja izango zuretzat.

10 *Beigole*: erroskila moduko bat; *knisch*: patataz eta tipulaz betetako hostopila.

Ioan Petru Culianu irakaslea Chicagoko Unibertsitateko barrutian hil zuten, egun argiz, sei urte lehenago, 1991ko maiatzaren 21ean. Erailketa perfektua zirudien: bala bakarra, irakaslearen burura, aldameneko komunetik disparatua, plastikozko komun-ontzian eserita baitzegoen hura, Divinity Schooleko irakasleen bainugelan. Erailketaren misterioak, ez baitzen argitu, espekulazioa erruz sortu zuen, ulertzekoa denez: Culianu irakasle gazteak bere maisuarekin zituen harremanak –Mircea Eliade, errumaniar jakintsua, erlijioen historian aditua, zeinari esker joan baitzen Culianu Amerikara–; Chicagoko errumaniar komunitatearekin eta erbestean zen Errumaniako errege ohiarekin zuen erlazioa; parapsikologiarekin zuen obsesioa. Eta hortxe zeuden, jakina, legionarioekiko harremanak ere. Burdinazko Guardia mugimendu nazionalista eskuindarra izan zen, kideak Legionarioak deitzen ziren, eta haren alde egin zuen Mircea Eliadek hogeita hamarretan; jarraitzaileak zeuzkan Chicagoko errumaniar komunitatean, eta Culianu, hain zuzen ere, maisuaren iragan politikoa kritikatzeko puntuan omen zegoen.

Chicagoko hilketa, egia da hori, *The New Republic* aldizkarian Eliaderen aldi legionarioari buruzko nire saiakera argitaratu zen une berean gertatu zen, 1991. urtean. Hilketaren ondoren, FBIa nigana etorri eta aholkatu zidan zuhurtasunez jokatzeko nire herrikideekiko harremanetan, eta ez bakarrik haiekikoetan.

Ez zen hura nire lagun amerikarrarekin gai hartaz hitz egiten nuen aurreneko aldia. Azken hilabeteetan, sarritan agertzen ziren gure solasaldietan Culianu, Eliade eta Sebastian,<sup>11</sup> Eliaderen adiskide judua.

Bukarestera abiatzeko data hurbildu ahala, behin eta berriz saiatzen zen Philip nire zalantzen eta kezken nolakotasuna definitzen. Nik ez nuen lortzen, oso zalantza eta kezka anbiguoak

11 Mihail Sebastian (1907-1945), errumaniar nobelista, antzerkigilea, saiakeragilea eta kazetaria.

ziren... Ez nekien zer saihestu nahi nuen, han, Errumanian: neure iraganeko niarekin topo egitea, edota jendeak ni nire irudi berriarekin identifikatzeak ikaratzten ote ninduen, alegia, erbestearen koroak eta aberriaren madarikazioek apaindurik.

–Ulertzen ditut, partez, zure motiboak. Izango dira beste batzuk ere, seguru. Baina bidaia honek betiko sendatuko dizu Ekialdeko Europaren sindromea.

–Baliteke. Baina ez nago itzultzeko prestatua. Oraindik ez naiz behar bezain axolagabea iraganari dagokionez.

–Horrexegatik ba! Bidaiaren ondoren, orduan izango zara behar bezain axolagabea. Denak itzultzen dira sendatuak.

Helduak ginen berriz ere betiko *impassera*. Orduko hartan, Philipek bereari eutsi zion.

–Eta lagunak, lehengo lekuak-eta berriz ikustea? Batzuen batzuk pozik ikusiko zenituela esan zenuen, prestatua sentitzen ez bazinen ere. Joan den astean kanposantu batez aritu zinen. Zure amaren hilobiaz.

Isilune luzea izan zen.

–Gaur berriz ikusi dut ama. Gaur goizean. Orain ordu-erdi, hona nentorrela. Kolpetik, banku batean eserita agertu zait, Amsterdam Avenuen. Egurrezko banku batean, Ottomanelli izeneko jatetxe baten parean.

Berriz isildu gara. Hirurogeita Hemeretzigarren Kalean bereizi gara, ohi bezala. Philip ezkerraldetik abiatu da Columbus Avenue aldera, Nik Amsterdametik behera jarraitu dut Hirurogeita Hamargarren kalerantz, estalinista ez den nire bloke estalinistaren aldera.

## JORMANIA

BARNEY GREENGRASSETIK ATERATA, segituan etorri zitzaizkidan berriz gogora Portofino ofizialaren aurpegia eta silueta. Aurpegi zabala, begiratu nagia, ardura handiz orraztutako ilea. Esku txikiak, oin txikiak, begiratu atsegina. Baxua, delikatua, traje urdin ilunez eta gorbata urdin batez jantzia.

Berehala esan zidan, elkarrizketa hasi orduko, kimikako irakaslea izan zela institutu batean bere profesio berriari heldu aurretik. Janzkeragatik, Errumaniako *securista*<sup>12</sup> bat ematen zuen, baina gizon haren manerek bestelako zerbait adierazten zuten. Gizon adeitsua, begirunetsua, bere kide errumaniarren faltsukeria eta zakarkeria gabe. Babestu nahi zintuela zirudien, ez ikaratu edo Jainkoak daki zer petralkeria egiteko errekrutatu, txakur sozialistak bezala.

Alabaina, ez zidan inolako babesik eskaini. Ez *bullet-proof vestik*,<sup>13</sup> ez bizkartzainik, ezta bakarrik bizi diren emakumeei gomendatzen zaien spraya ere, erasotzailea bertatik itsutzen duen hori. Gizon haren aholkuak moderatuak eta adiskidetsuak ziren, amona baten aholku zuhurrak ziruditen: erne ibili kalean, maiz ikusiz gero aurpegi bera inguruan; tarteka aldatu ibilaldien nondik norakoa eta egunkaria erosteko ordua; gutun susmagarri-rik ez ireki. *Lay low*<sup>14</sup> ere ez zuen erantsi, ohiko gauza izan arren.

12 *Securista: Securitate* Errumaniako erregimen komunistaren polizia politikoko kidea.

13 Balen kontrako jaka.

14 Ez nabarmendu.

Baina bere bisita-txartela eman zidan, etxeko telefono-zenbakia erantsita, larrialdiren bat izanez gero erabiltzeko. Gizon hark eman zidan talismanak, alabaina, ez zuen aldatu ez neure baitara biltzeko nuen joera, ez nire gizarte-jokamoldea, ardura gutxikoa. Aitzitik, areagotu egin zitzaizkidan urduritasuna eta ezinegona.

Jimmy Portofino poliziako ofizialarekin izan nuen elkarriketaren motiboa izan zen agertu berria zela nire idatzi bat *The New Republic* aldizkarian, Eliaderen *felix culpa* auzitan jarzen zuena: hau da, Eliadek hogeita hamar urtean Burdinazko Guardiarekin izan zituen harremanak, zeinak, gaur egun ere, jarraitzaileak baititu Amerikako errumaniarren eta Errumaniako jendearen artean. Gai arriskutsua zen, Culihanuren erailketak frogatu zuen bezala. Bard Collegeko zuzendaritzak ere FBIaren laguntza eskatu zuen bere irakasle errumaniarra babesteko.

Geroago, poliziarekiko topaketa hartatik urtebetera edo, mezu anonimo bat jaso nuen, Kanadatik zetorrena. Gutuneko letrakera ez nuen ezagutzen, eta nik grafologiaz ezer ez dakit. Barruan postal bat, hitzik ez zekarrena. Gutuna bota egin nuen, baina postala ez, postala gorde nuen: Marc Chagall, *Le Martyr*, Kunsthau, Zurich. Gurutziltzearen bertsio judua edo. Martiria ez dago ez gurutziltzatua, ez gurutzean iltzez josia, eskuetatik eta oinetatik poste bati lotua baizik, sute batek erretako herri baten erdian; lehen planoan, zenbait pertsonaia ageri dira: ama, biolinista, tenpluko maisua bere dizipuluekin. Kristo judu gazte baten aurpegia, bizarrarekin eta patillekin: pogromoaren irudia. Ez Holokaustoa deitore ooren topiko bihurtua, ez: Ekialdeko Europako pogromoaren terrorea. Nik ez nekien mezu hura nola ulertu. Mehatxua ote zen, edo, alderantziz, elkartasuna adierazi nahi zidan? Askotan egoten nintzen postalari begira, nire idazmahaiian baineukan.

Sei urte igaro ziren, ez zidaten mehatxurik egin eta ez ninduten erail, baina koherentzia aurkitzen nuen, kontraesanak baino areago, 1989aren aurretik Errumaniako prentsa komunistak

eskaini zizkidan irainen –“alderdiaren kontrakoa”, “lurraldezk kanpokoa” edo “kosmopolita”–, eta postkomunistek gero ipini zizkidanen artean –“traidorea”, “Jerusalemgo ipotxa” edo “amerikar agentea”–. Harengatik sentitzen ote nuen ez nintzela aberria bisitatzeko gauza?

Philipengandik apartatu eta gero, Ottomanelliren pareko bankura itzuli nintzen, ordubete eskas lehenago iraganak berreskuratu ninduen lekura. Errazagoa izango ote zen nire gauzak polizia amerikar bati azaltzea? Hari gogoraraziko zion zer edo zer Culienu kasuak: bala hurbiletik disparatua, aldameneko komunetik, pistola txikia, Beretta 25, ezkerreko eskuarekin helduta, ez-amerikar batek seguruen. Zauri hilgarria: *Occipital area of the head, 4-and-a-half inches below the top of the head and one-half each into the right of the external occipital tubical.*<sup>15</sup> Hiltzaile profesionala, exekuzio-tankerako krimena, gertalekua (komuna, egunez), Konstantino eta Elena santuen jaia, Ioan Petru Culienuren amaren eguna ortodoxoen santutegian.

Gogoratuko ote zen Jimmy Portofino biktimaren aurpegiak, nola zahartu zen bat-batean, heriotzak kolpetik hogeitau urte erantsi balizkio bezala? Amerikar poliziak –hori segurua zen guztiz– bazeukan informazioa Burdinazko Guardia begi onez ikusten zuten Chicagoko errumaniarrez; bazekien han babestu zela aspaldi Codreanu Burdinazko Guardiaren kapitain mistikoaren biloba, Corneliu Zelea, eta hantxe bizi zela Alexandru Ronett zaharra ere, Eliaderen sendagilea, legionario suharra. Securitateak errumaniarra seinalatzen zuten datu guztiek, eta Securitateak Chicagoko legionarioekin zeuzkan harremanak. Poliziak ezagutzen zuen, inondik ere, Culienuren biografia, baita Eliaderenganako debozioak haren dizipulu akritikoa bihurtu zuela deitoratzen zuen gutuna ere. Culienu, parrizidiorako prest

15 “Buruko eremu okzipitala, lau hazbete eta erdi buru-gainaren azpian eta hazbete eta erdi kanpoko irtenune okzipitalaren eskuinera”.

zegoen dizipulua? Onartu zuen bere mentorea “gertuago zegoela Burdinazko Guardiatic nik sinetsi nahi nukeena baino”. Culianu Migel errege ohiaren ondoan agertu izanak ez zien poz handirik eman ez legionarioei, ez errumaniar securistei; ezta emakume judu batekin ezkontzeko eta judutasunera bihurtzeko zuen asmoak ere. Hil baino urtebete lehenago, Culianuk jendaurrean kondenatu zuen Burdinazko Guardiaren “fundamentalismo terrorista”, eta berebat kondenatu zituen jendaurrean postkomunismoaren polizia sekretua, errumaniar komunismoa eta errumaniar kulturaren nazionalismoa.

Ba al zekien amerikar poliziak zein ziren irakasle erailaren obsesioak: magia, premonizioa, estasiaren esperientzia, parapsikologia? Eta Errumaniako nazionalistek izan zuten erreakzioa, haren erailketaren berri jakin zutenean? “Chicagoko gangsterren megalopolian babesturiko morroi horri dagokionez, gorotz-zati horri eskainitako apologia okaztagarria izan da krimenik latzena, ez baitute nahiko ur bota patuak, itxuraz, eskaini dion komun zorigaiztokoan”, halaxe zioen *România Mare* (Errumania Handia) aldizkariak Culianuren heriotza-albistean. Aldizkari sentsazionalista horrek berak estali ninduen ni ere adjektibo beltzez 1989aren ondoren, histeria nazionalista baten zorne nazkagarria zeriola, eta baita lehenago ere, *Săptămîna* (Astea) izenarekin, Securitatea komunistaren organo “kulturala” zenean. Ba al zekien Portofino ofizialak Ekialdeko Europarekin lotutako amerikar erakunde gehienetan banatu zirela, inork eskatu gabe, Culianuaren erailketaz pozten zen *România Mare* aldizkariaren aleak? Securitateak berak bidalita agian?

Eta orain, aberrira itzuli baino lehen, Chagallen *Martiria* deskribatu behar ote diot Portofinori? Eszenaren erdian ghettoaren semea, otoitzaren *talit* marra zuri-beltzean bildua. Besoak ez dira sokez lotuak ageri, ezta oinak ere, hasieran nik uste izan



nuen bezala, *teflinen*<sup>16</sup> lokarri mehez baizik. Zeruan, sugarren eta kearen artean, purpurazko antxumea eta urrezko oilarra proiektatzen dira; eta su-metaren ondoan, ama edo andregai, biolinista, agurea liburuarekin. Mehatxua edo elkartasuna, zer adierazten zuen postal hark? Ni ez naiz arnegatu bat, Portofino jauna, ezta konbertitu bat ere, ezin diet hutsik egin, nolana ere, ni bezalako pertsona batengandik ezer espero ez dutenei!

Interesatuko ote zitzaion Portofino jaunari aberrira itzultzeak ematen zidan beldurra? Bai, Culianuk, nik bezala, ikaratua zirudien itzuli behar zuelako, berrehun eta berrogeita hamar urte lehenago, haren arbaso grekoak Otomandar Inperioaren pertsekuzioetatik hantxe babestu zirenean, aberrria bihurtu zitzaion herrialdera. Baina Jormanian bihurtu zitzaion pixkana-pixkana Culianuri berak maite izan zuen Errumania, zeinaren hizkuntzan hezi baitzen. Borgesen eragin lausoa zuten bi kontakizun ia fantastikoetan deskribatu zuen Culianuk Jormanian hura.

Aurrenekoan, Sobiet Batasunaren Inperio Makulistik, Jormanian espioiekin elkarlanean, bertako diktadorea eta Mortu Kamarada haren emaztea akabatu ondoren, “demokrazia” bananero bat ezartzen zuen, pornografia eta exekuzio-pelotoiak nagusi zirenak.

Bigarren kontakizunak iraultzaren ondorengo errealitatea deskribatzen zuen, baliatuz hartarako irudimenezko memoria-idazle baten irudimenezko memoria-liburu baten erreseina irudimenezkoa. Iraultza faltsu bat deskribatzen da bertan, eta ondorengo trantsizio faltsua demokrazia faltsu batera: garai bateko securisten aberaste bizkorra, krimen ilunak, ustelkeria, demagogia, komunista ohien eta Egurrezko Guardiaren, hau

16 *Teflin* (hitz hebrearra): filakteriak. Kutxa txikiak dira, Toraren bertsoak idatzita dauzkaten pergaminozko orri-puxkak gordetzen dituzte, eta judu elizkoiek kopetan eta ezkerreko besoan jantzen dituzte errezu jakin batzuk egitean.

da, eskuindar berrien arteko lotura. Irudimenezko lekukoaren memoria irudimenezkoek berebat gogoratzen zuten “Conducun” tiranoaren eta “Madame Mortu” emaztearen prozesu faltsua eta exekuzio bizkorra, estatu-kolpea, martiri faltsuen hiletak, herri manipulatu... *Conducător* berriak, kamarada presidentearen eraileak, zeinak “Presidente jauna” deitzea nahi baitzuen, Errumaniako umore tradizionalaz aipatzen zuen egoera: “Ez al da ba hori herriaren eginkizun nagusia?”. Alegia: engainatua izatea.

Hala ba, halakoxea da Jormania, Portofino jauna! Arrazoa duzu, ez zioten naturaz gaingandiko indarrek galarazi Culianuri bere herrira itzultzea, Jormaniak baizik, Balkanetakoak edo Chicagokoak. Baina lagunak, liburuak, maitasuna, txisteak, kantuak: hori guztia non sartzen da, nola egin horiei denei ezikusia? Eta bizia eman digun ama, gure aberri egiazkoa? Noiz bihurtzen da Jormania hori guztia, izan legionarioa edo komunista? Nonahi gertatzen ote da gauza bera, noiznahi, hala ote da, Jimmy? Culianu bezala, nekatua nengoen ni ere aberriaren kontraesanak aztertzeaz. Nire iragana ez zen harena bezalakoa, eta ezerk ikaratzen baninduen, Bukaresteko pistolek behintzat ez. Areago ikaratzen ninduen oraindik askatu gabeak nituen loturen nahasmenak.

Ottomanelli Bros jatetxearen aurretik pasatzen ziren oinezkoek nire FBIko aingeru zaindariaren antzik ez zuten, eta nik ez nuen faltan ematen. Egia esatera, ni ez nengoen banku hartan Portofino ofizialaren zain, aspalditik geldi; beste pertsona baten zain nengoen. Andre zahar baten zain. Solaskide hark gehiago zekien nitaz neronek baino; azalpen-premiarik ez zen izango.

Gogoratuko ote zen andre zaharra, adibidez, hirurogeita bi urte lehenago aitonaren liburu-dendan agertu zen liburu txikiak?

Ariel lehengusuak, bohemio errebeldeak, ilea gorritz tindaturik eta begiak beltz-beltzak, liburu txiki bat irakurtzen zien, drogei eta hipnosiari buruzko lan bat balitz bezala, mostradorea-

ren inguruan bildutakoei, *Cum am devenit huligan* (Nola bihurtu nintzen huligan), liburu azal-mehea, arrosa-kolora. Haren lehengusinak, liburuzainaren alabak, suhartasunez pasatzen zituen liburuaren orriak. Hitz jakin bat agertzen zen behin eta berriz, hitz bera beti, Arielen komentarioetan: *Goazen!* Indarrez errepikaturik, erritmo berean, “iraultza”, “salbazioa” edo “errenazimentua” esango balu bezala. “Orain, oraintxe bertan, garaiz gabiltza-eta: *Goazen!*”. Noizean behin, Arielek buelta ematen zion liburuari eta burlaz erreparatzen zion, begiak zabal-zabalik, azaleko izenari: “Sebastian, aditzen? Hechter jauna, Sebastian deitua!”.

Ez zen Culihan nire bidaiaren sorburuan zegoena, beste hildako bat baizik, Mircea Eliaderen beste lagun bat, haren bizitzaren beste garai batekoa: Mihail Sebastian, nik Barney Greengrassen gosarian aipatu nuena, argitaratu berria baitzen Bukaresten haren egunkaria, mende-erdia lehenago idatzia. Baina hil ondoko liburu hura ezin zen aurrekoekin batera iraganeko apaletan ipini: liburu-denda ez zen jadanik existitzen, aitona ere ez, ezta haren iloba Ariel ere. Nire ama ere ez zen existitzen, baina hura bai, hura ondo asko gogoratuko zen Sebastianen eskandaluaz! Primerako oroimena zuen, primerakoa izango du oraindik ere, ez dut dudarik egiten.

Antisemitismo ernegatzailea eta betierekoa, zeinarentzat faxismoaren aurreko Jormaniak ikerketa-alor ederra eskaintzen baitzuen, “sufirimenduaren periferia” iruditzen zitzaion Sebastiani. Besteak baino gehiago denaren onginahiaz ikusten zituen hark kanpoko ezbeharrak, usadiozko txikikeriak balira bezala, juduaren arima setiatzen duen “barne-ezbehar” kiskalgarria ez bezalakoak. “Ez da herririk izan bere bekatuak, egiazkoak nahiz irudimenezkoak, krudelkeria handiagok aitortu dituenik, inork ez du bere burua hain latz miatu, ez bere burua halako zorrotzasunez zigortu. Bibliako iragarleen ahotsak dira munduan inoiz aditu diren ikaragarrienak”. 1935ean idatzitako hitzak dira,

kanpo-ezbeharrak hasiak zirenean, bazetorren hondamendia iragartzen.

“Gure sufrimenduaren periferia?”, garrasi egiten zuen sututa Arielek, amaren lehengusu eta aitonaren ilobak, 1935eko Jormaniako bere liburu-denda txikian, ni jaio baino urtebete lehenago.

“Hori al da Sebastian jaun horren erakutsia? Gure sufrimenduaren periferia? Laster ikusiko du horrek, bai, zer nolako periferia den!”.

Urtebete lehenago, 1934an, bere *De doua mii de ani* (Duela bi mila urte) nobelaren argitalpenak sortu zuen eskandaluari aurre egin behar izan zion Sebastianek. Hitzaurrea Nae Ionescuk egin zen, Burdinazko Guardiaren ideologoa bihurtu zen Sebastianen adiskide batek. Kristau herriaren etsai menderaezina ikusten zuen hitzaurregileak juduarengan, desagerrarazi beharreko etsaia.

Denek erasotzen ziotelarik, kristau nahiz judu, liberal nahiz muturreko, saiakera-lan bikain baten bitartez erantzun zuen Sebastianek, *Cum am devenit huligan* (Nola bihurtu nintzen huligana). Doinu neurritsua eta zehatza erabiliz, xalotasunez aipatzen zituen egileak juduen sufrimenduaren “autonomia espiritual”, haien “zain tragikoa”, “sentiberatasun zalapartatsu baten eta sen kritiko errukigabeko baten” arteko gatazka, zeinak “intelligentziarik hotzenak eta pasiorik neurrigabeenak” eragiten baititu.

Huligana? Zer esan nahi zuen, marginala, lerrokatu gabea, baztertua? Sebastianek, “Danubioko juduak” –halaxe definitzen zuen bere burua–, argi eta garbi azaltzen zituen bere ideiak: “Ni ez natzaio ezeri lotzen, ni disidentea izan naiz beti. Nik gizabakoan bakarrik sinesten dut, baina fede handia dut harengan”.

Disidentea, hau da, baita disidenteen sektari dagokionez ere? Neure burua ere ezagutzen nuen nik umekeria haietan, amak ondo asko zekienez, baita ghettotik ateratzeko premia

larrian ere... Ghettoaren kanpoan adiskideak zain bagenu bezala, zabalik besoak, Sebastian jaunak eta nik, beste ghettoen komedia topatuko ez bagenu bezala. Zeure buruaz ere nekatzen zara, hala esan ohi zuen Sebastianek... Amak ez zuen bere "pertenentzia" definitzeko premiarik, bizi egiten zuen, besterik gabe, larritasuna eta depresioa ere bere baitan hartzen dituen fede mistiko eta fatalista horrekin.

"Gu gu gara eta haiek haiek dira, gogoratzen? Ez ditugu besteak zertan gorrotatu, ez pozik emango digutenik zertan espero ere. Baina ez ditugu haien ikaragarrikeriak ahaztu behar".

Nik klixe haiek histeriaz hartzen nituen, hamahiru urterekin, hogeita hirurekin, hogeita hamahirurekin eta baita geroago ere, baina amaren tema ez zen hargatik gutxitzen, bere burua behin eta berriz definitu behar hura. Izaera tragedia gisa, hala zioten antzinako grekoek: egunero ikusten nuen nik hura, gure familiako matriarkatu neurotikoa eta "pertenentzia" kolektiboan.

Joatea, bai. Arrazoia zuen Arielek. Ni ere konbentzituko ninduen azkenean denborak, halaxe esaten nion behin eta berriz neure buruari, denborak behartuko ninduen nire okerra aitortzera, mundu horietan barna abiatzera, baina berandu izango zen. "Berandu izango da eta gaua izango da", poetak esaten zuen bezala. Berandu izango da eta gaua izango da, eta zu hemendik joango zara, hori segurua da.

Poetak, iragarleak baino buruargiagoak? 1997an argitaratu zen Sebastianen *Egunkaria*, egilea hil eta mende-erdia baino gehiago ere pasatuta, eta hartan deskribatzen dira etsai bihurturiko adiskideengandik zetozen "ezbeharrak". "Arratsalde urduria... mehatxu zehaztugabeak. Atea ez dagoela ondo itxia, kontraleihoak gardenak direla edo paretak ere gardenak bihurtu direla. Nonahitik, noiznahi, arriskuren bat sar daiteke kanpotik, izan ere, ondo asko dakit mehatxua hortxe dagoela beti".

Joan egin nintzen, azkenean joan nintzen! Kontzientziak ausiki egiten zidala lehenago joan ez nintzelako, eta kontzien-ziak ausiki egiten zidala, orobat, banindoalako.

1934an, honako hau jakinarazten zuen, egilearen izenean, Sebastianen nobelaren protagonistak: “Jakin nahi nuke, adibidez, zer legedia antisemitak ezerezta dezakeen atzerabiderik ez duen gertaera hau: ni Danubioaren bazterrean jaioa naiz eta lur hau maite dut... Hondamendi intimoengana dudana zaletasun juduaren kontra, bere axolagabetasun erregetiarraren eredia eskaintzen du ibaiak”. 1943an, galdetzen zuen idazleak: “Itzuliko ote naiz jende horren ondora? Ezer hautsi gabe igaroko ote da gerra? Ezeztazinezko, menderaezinezko ezer ipini gabe nire ‘atzoko’ eta ‘biharko’ bizitzen artean?”. Gerra amaitzean, Hechter-Sebastian, azkenean, prestatzen hasi zen betiko uzteko “ezer aldatzen ez den Errumania betierekoa”. Sendatzen errazagoa zirudien nonbait Hudson ibaiaren bazterrean Danubio-reenean baino hondamendi-zaletasun juduak.

Heriotzak galarazi zion Culianuri Errumaniara itzultzea, eta Errumaniatik alde egitea Sebastiani. Nirekin beste modu batera jokatzeko zuten heriotzak, ninfomano horrek: neure gerora bidaiatzeko pribilegioa eskaintzen zidan.

Nire jatorrizko Bukovinak ere, Danubioak bezala, jadanik existitzen ez den biografia bat defini lezake. Hizkuntza, paisaia eta adinak ez dira automatikoki ezabatzen, kanpoko ezbeharren kariaz huts-hutsik. Baina Bukovinako eskualdearen maitasunak ez du Jormania ezabatzen. Non elkartzeko, non bereizten ziren Jormania eta Errumania? “Ezer ez dago seriorik, ezer ez larririk, ezer ez da egiazkorik panfletario irribarretsuen kultura honetan. *Eta, batez ere, hemen ezer ez da bateraezina*”. Sebastianen hitzak dira, baina Ioan Petru Culianuk berak ere izenpetu zitzaizkeen. “Gure bizitza publikoari oso-osorik falta zaion nozio bat: bateraezintasuna”, halaxe errepikatzen zuen, beste denboretan, suturik, Arielek ere, nire amaren lehengusu gazteak.

“Bateraezintasuna gauza ezezaguna da Danubioaren bazterrean”, era horretan azal nezakeen nik, beste askorekin batera, gure atzera-aurrera gabeko egoera eternala. Kanpo-ezbeharrak? Ni gazte-gaztetandik trebatu ninduten hutsalkeria horretan. Eta behin eta berriz trebatuko ninduten gero. Baina pertsona setiatuak ez ditu erraz saihesten irudipen nartzisistak eta masokismo patetikoa... Biktimismoa ostera ere, biktimaren deitorea? Noiz eta denek erreibindikatzen dutenean biktimaren armari adabakiz egina, izan gizona, emakumea, bisexuala, budista, gizona, ziklista?

Aurpegian itsatsia neukan nik maskara, ordea: betiko etsai publikoa, Bestea!! “Bestea” izan nintzen ni beti, jakinaren gainean nahiz jakin gabe, maskara erantzita edo erantzi gabe, identifikatzen ez banintzen ere, ez amaren ghettoarekin, ez beste inongo ghetto identitariorekin ere. Barne-ezbeharrak kanpo-ezbeharrekin batera daitezke, baita norberaren nekearekin ere.

Ikusgaitasuna saihestu, Schlemihlek bezala?<sup>17</sup> Itzalik gabe, identitaterik gabe, iluntasunean bakarrik ibili?

Orduan bai, orduan naturaltasunez solastatuko nintzateke, segur aski, deika dauzkadan hilekin.

17 A. Von Chamisoren *Peter Schlemiblen istorio barrigarria* (1813) kontakizunaren protagonista. Bere itzala saldu zion deabruari, azpirik gabeko diru-zorro baten truke.

## AURKIBIDEA

<i>HITZAURREA</i>	7
ATARIKOAK	23
Barney Greengrass	25
Jormania	35
Augustoren zirkua	46
Iraganeko helbideak (I)	53
Egutegi berria	61
Atzaparra (I)	77
LEHEN ITZULERA (IRAGANA FIKZIO GISA)	93
Hasieraren aurreko hasiera	95
Huligan-urtea	104
Bukovina	117
Txernobyl, 1986	126
Neska gazte loratuen zauria	148
Hizkuntza nomada	161
Arrotza	165
Bloomsday	173
Larrialdietako irteera	175
Iraganeko helbideak (II)	182
Maria	186
Gora erregea!	188
Utopia	193
Periprava, 1985	217
Funtzionarioa	230
Irteera	238



Gaueko txanda	250
Barraskiloaren etxea	257
Atzaparra (II)	267
DIBAN VIENARRA	281
Anamnesia	283
BIGARREN ITZULERA (GEROA)	315
Bidean	317
Lehen eguna	323
Bigarren eguna	344
Gau-hizkuntza	361
Hirugarren eguna	368
Laugarren eguna	377
Gaueko solaskideak	383
Bosgarren eguna	394
Izatearen etxea	402
Seigarren eguna	408
Zazpigarren eguna	424
Gaueko trena	430
Zortzigarren eguna	433
Bederatzigarren eguna	438
Egunik luzeena	445
Azkenurreko eguna	461
Azkeneko eguna	467